AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

5049

33/2016 DEKRETUA, azaroaren 26koa, Lehendakariarena, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua izendatzeko dena.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 33.2 artikuluak eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.b) artikuluak ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– José Alfredo Retortillo Paniagua jauna haren merezimenduak eta dohainak kontuan izanik, Turismo, Merkataritza eta Konstumoko sailburu izendatzen dut.

Herritar eta agintari guztiei agintzen diet bete ditzatela sailburuak legediaren araberako funtzioak baliatuz ematen dituen aginduak, betiere pertsona eta agintari legez dagokion begirunea erakutsita.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 26an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.